

bidegileak



Elbira Zipitria (1906-1982)


Egilea:

MARI KARMEN MITXELENA

Nondik norakoa

hiturarik ez duenarentzat lan zaila da idaztea. Baina, nekeak neke, ez naiz saiatu gabe geratuko. Izan ere, Elbira Zipitriak egin ninduen, beste asko bezala, ikastoletarako eta euskal irakas-kuntzarako gai, elkarrekin egin genuen lan eta elkarrekin egin genituen ibilaldiak Euskal Herrian barrena. Zorra aitortzeko, bederen, ez naiz ahalegin hau egin gabe geratuko.

Elbira Justa Zipitria Irastortza, Zumaian jaio zen, Torreako porlan fabrikako etxean, 1906ko maiatzaren 28an. Jazinto Zipitria Arregi zuen aita (1869-1927), Billabonako semea eta ama, Maria Iras-



Elbira Zipitria (1906-1982)

tortza Tapia (1862-1930), Lazkaoko alaba. Hiru senideetatik gazteena zen: Maria moja urte askotan Marsellan bizi izan zena, Jorje margolaria (erretratista) munduan zehar ibilitakoa eta Elbira. Maiatzaren 30ean bataiatu zuen Juan Jose Etxeberriak San Pedro parrokian. Eta Elbira Aranzegi bataioko amabitxiaren izen bera ezarri zioten.

Zipitria, ordea, Andoaingo abizena da, Juan Bautista aitonaren aldetik. Manuel Lekuonak

Andoaingo paperetan egindako ikerketen arabera, aldaketaren aldaketaz iritsi zaigu Zipitria abizena: Zufiritegia, Zufiritia, Zufitria, Zifitria, Zipitria.

Aita, hargina, lan arazoengatik oso gazterik Donostiara etorri zen bizitzera familiarekin, amaren sorterrian, Lazkaoko Senperen alditxo bat egin eta gero. Alde Zaharreko Fermin Calbeton kaleko 26an zuten etxea. Sarritan esaten zuten Elbirak haien etxean ez zutela dirurik ikasketak egiteko, baina Foru Aldundiak eskaintako bekari esker irakasle-ikasketak egin zituela.

Ikasketak bukatutakoan, Migel Muñoak, 1914an, Donostian sortu zuen Koruko Andre Mariaren ikastetxean hasi zen irakasten Elbira Zipi-

tria, 1928an, Eli Etxeberria EAJko burukidea zuzendari zela. Muñoa donostiar eskuzabalari esker hainbat eta hainbat haur euskaraz eskolatuak izan ziren, bera arduratzen baitzen eskolak sortzen zituen gastu guztiak ordaintzen. Guztira, ia berrehun neska-mutil.

Juan de Bilbao kalean hasi zen Elbira, hirurogeita hamar haur inguruko ikastolan. Itziar Errementeria —Xabier Aizarna, diputatu nagusi zenaren emaztea— dugu ikasleetako bat, zazpi urterekin hasi omen zen-eta Elbirarekin, 1929an.

Zipitriak, oso abertzalea, EAJko alderdikide sutsua eta *Emakume Abertzale Batzako* kidea zenez, lasterka, Iparraldera ihesi joan behar izan zuen 36ko gerratean, Eli Etxeberria,



Elbiraren etxea eta ezkutuko ikastola

Migel Muñoa eta beste askorekin batera. Baina Zipitriak ez zuen etsi eta euskaraz irakasten jarraitu zuen bai Iparraldean eta bai Donostiara itzultitakoan.

Esan beharra dago, Elbirak, 65 urte betetzear zegoela, erretiro saria kaxkarra izanik, haren adiskideak, ikastolako gurasoak eta abar saiatu zirela hilabetero diruz laguntzen. Baina Elbiraren arazoa bakardadearena izan zen eta hemen ere hamaika guraso txandatur joaten ziren konpainia egitera. Besteak beste, Maria Dolores Agirre zenbat aldiz joan ote



Elbira, ahizpa moja eta Maria Dolores Agirre

zitzeaion ordurako Gaztelutik buelta eginda eta ohean sartuta zegoen Elbirari bazkaria ematera.

Urte ilun horietan hilabete batzuk Usurbilgo San Esteban auzoko erietxean igaro zituen. Nik azkeneko elkarrizketa han izan nuen. Hura ez zen nik hainbat urtetan mirestu nuen emakume argi eta bizkorra. Horixe bera aitortzen du Maria Dolores Agirrek ere: «gaztetan txoria bezain alaia zen, beti abeslari, gerora goibel bihurtu bazen ere».

Gaixotasun luzearen ondoren Donostian hil zen, 1982ko abenduaren 26an. Haren nahia beteaz, Bermeoko Mañuko elizan hurrengo egunean hileta-elizkizuna egin zen eta kanposantuan hilobiratu. Zergatik Mañun? Bertako apaiza, Gotzon Garitaonandia adiskide mina zuen eta bera bizi zen baserrian *Bizkai-ko amama* Eskolastika, 106 urterekin hil zena, ezagutu zuen. Elbirak bertara egiten zuen bisita bakoitzean amamarekin Euskal Herriko kondairaz bitxikeria asko ikasten zituena. Hain gustukoa zuen Mañu, hantxe hilobiratzea erabaki zuen Elbirak, bere amamaren inguruan, auzo soil eta apalean.

Lantxo hau prestatzen ari naizela, Mañura joateko irrika izan dut eta nire harridura, bertako sakristaia, Juan Abaroa, Amama Eskolastikaren biloba dela jakitean. Aldaketa handiak egin dituzte elizan eta kanposantuan, baina Elbirak bertan aurkitu zuen xarmak irauten du.

Lapurditik Donostiara

Lapurdik Saran hego aldetik ihes egindako hainbat familiarekin topo egin zuen. Lehendik ezagunak zituen Tolosako Labaiendarrekin bizitzen jarri zen. Hauen seme Ramontxo eta Matxin eta beste haur batzuei eskolak ematen zizkien.

Donostian, 1984an Elbirari eskainitako omenaldian, bertako alkate zen Ramon Labaienek, hainbat alditan Zipitriak bere hurrekin Gaztelura igotzean erabilitako bideari *Andereño Elbira Zipitria Bidea* izena ezarri zion. Bide hau Santa Mariako elizaren atze-

tik, Karmeldarren aldapatik gora doana da.

Ramon Labaienek bere hitz laburretan hauxe adierazi zuen: beti irakasle ezagutu zuela, bai hemen eta bai han, haurrekin eta helduekin. Matxin Labaienek, berriz, *Prefetenako* goiko gelatik honela gogoratzen du Elbira: «txikientzat oso zen andereño ona, izadizale purrukataua, gure eskutan erortzen ziren lore, arraitxo, mixirrikak, horiek ziren libururik onenak. Saran, Elbirarekin ikasitakoa ez dut inoiz ahaztuko».

Lapurditik ahal zuen azkarren itzulirik, berriro Donostian gogor ekin zion bere betiko



Koruko Andre Mari ikastetxeko ikasle eta irakasleak Eli Etxebarria zuzendariarekin eta Muñoa jabearekin

bokazioari, irakaskuntzari. Nahiz eta une zailak izan, 1942an, Prim kaleko Arriola sendagilearen etxean eskolak ematen hasi zen berorren seme Patxi eta Xabier Garaialderi. Geroxeago taldea ugaritzen joan zelako, behar adina leku ez eta, Urbietan kalera pasaziren, Goenagatarren etxera. Hemen beste artean aurreko biak eta Itziar Goenaga, Ana Mari Isasa, Koro Larrea eta Gorka Leskak osatzen zuten taldea. Handik lau urtera Elbira ausartu zen bere etxean, Fermin Calbeton 26an, guztiok ezagutu genuen ikastola bitxiari hasiera ematera. Orduz geroz etxe hartako ateak zabalik izan ziren ikasle, irakasle, guraso eta euskararen eta aberriaren alde lan egiteko prest zeuden guztientzat.

Orixe ikastolaren sorreran gogor saiatu zen 1969an, nahiz eta oso kezkatu azaldu etorkizunari buruz. Orixe ikastola 1971n utzi zuen, 65 urterekin.

Andereñoen trebatzailea

Irakasle-ikasketak bukatu ondoren, Elbiraren etxean benetako irakaskuntza zer eta nolakoa zen deskubritu nuela, esan dezaket.

Hark jarritako baldintza zen bere ondoan ikasturte osoa igaro behar nuela nire prestaketa osatzeko. Batek baino gehiagok esan dezake ez ote zen gehitxo eskatzea beste urte bat gure ikasketak luzatzea?

Hasieran esan zidan, «malas maestras españolas zarete zuek». Gogor xamarra ezta! Baina azalpena hemen dator. «Malas» garai hartako irakasle-eskoletako prestakuntza erabat atzerakoia zela zerizkion eta «españolas» gazteleraz jaso genuelako formakuntza.

Aste bat berarekin lanean pasa baino lehen jabetu nintzen arrazoi osoa zuela eta bere ondoan eta hurrekin ikasi nuen benetan



Elbira 1932an Eusko Ikaskuntzako udako ikastaroan



Zipitria Aralarren haurren eta gurasoen artean

irakaskuntza maitatzen, eskola bizia ezagutzen eta Elbira aparteko irakasle bezala miren.

Nik neure buruari galdetzen nion, «Elbirak non eta nola ezagutu du irakasteko modu berezi hau?». Aurrez esan beharra dut, Elbira, emakume argia eta langilea izateaz gain, beti zerbait behatzen aritzen zen. Haren jakin-mina ase ezina zen, oso kontentagaitza ere bazen, horrek bultzatzen zuen ikertzera.

Elbirak, guda garaia Iparraldean igaro zuenez, egoera hau aprobetxatu zuen frantsesa ikas-

teko; bere ahizpa moja Marsellan bizi zenez, berriz, harremanak estutu zituen irakaskuntza munduan ari ziren hainbat pertsonarekin. Haren liburuen altxorra eskuetan izan dudanean, liburu horietako asko frantsesetz daudela ohartu naiz.

Zipitriaren kezkarik handiena ikastola berriak sortzearena zen, baina horretarako irakasleak trebatu behar ziren eta handik eta hemendik eskariak jasotzen zituen. Askorentzat urte osoa prestatzen igarotzea gehiegi izan arren, Elbirak horretan ez zuen amore ematen.

Ezkutuko garai haietan, hamabost bat irakasle pasa ginen haren eskuetatik. Horrela ireki ziren Donostian eta hainbat herritan ikastolak: Pasaian, Hernanin, Lazkaon, Añorgan, Lasarten,...

Garai hartan Xabier Peña, tolosarra, Bilboko irakasle batzuekin sarritan etortzen zen Elbirarengana laguntza eske. Maria Angeles Garai Bilboko ikastolako lehen andereñoa ere Elbiraren etxeko ikastolara etorri zen trebatzera. «Gela iluna», iruditu zitzaion, «baina Elbira haurrekin zegoenean beste gozotasun bat hartzen zuena».

Irakasleak trebatze lanean oso zorrotza zen, zintzo erantzun behar zitzairen bere eskakizunei. Baina emateko kontuan ez zen atzera gelditzen, orduak eta orduak gurekin pasatzeko beti prest; gu, irakasle soilak izanik, premia larrian aurkitzen baikin, bai pedagogi eta baita euskara mailan ere. Egia esan zorte handia izan genuen urte askotan bere inguruan ibilitakook. Hanka-sartze ugari egin bagenituen ere, hantxe izaten genuen zuzentzen eta, gainera ziur, hurrengoan kontuan hartuko genuela egindako zuzenketa.

Adibidez: «Apaizak sermoian zertaz hitz egin du?». Erantzuna: «Ama Birjinaren gainean aritu da». «Zer! Ama Birjinaren gainera igo al da?» Lezioa ikasia geratzen zen. Astelehen goizean ikasle txiki bat etorri zitzaion mihura sorta polit batekin: «andereño, zuretzat». Elbiraren azalpena hauxe izan zen: «Mihura sagarrondoaren gaixotasuna da, beraz, ez da egokia opari egiteko. Eskerrik asko, baina esan aita eta amari hurrengo baterako».

Dakigun bezala hurrek mila galdera egiten dituzte eta Elbirak, gehienetan erantzun zehatza prest izan arren, tarteka esaten zien: «Andereñoak den-dena ez daki eta hurrengorako ikasiko dut». Baita ikasi ere, nahiz eta horretarako baserritarren berezko jakinduriara edo-eta Ataungo jakintsuarengana jo beharra izan.



Elbira Zipitriari 1984an eskainitako bidea

Irakaskuntza aurrerakoia

z dugu ahaztu behar ezkutuko ikastolaz ari garela, orain dela 50 urte inguru ezagututakoaz. Bere etxeko sala zen ikasgela, hamar neska-mutil 7-8 urtekoak, goizez eta beste horrenbeste 5-6 urtekoak, arratsalde. Zergatik kopuru hau? 10 arte klase partikularra bezala jotzen zenez, ezkutuko ikastola sortzeko balio zuelako.

Gelatxo hartan zer aurkitzen zen? Hormatik zintzilikatzen zen mahaia, aulki luzea, kutxa Mikel goiaingeruaren irudiarekin eta apaltxoak; potetxoetan arkatzak, margoak, kanikak, txotxak, igeltsua, jostailuak, eta, jakina,



Zipitria 1960an, Aralarren dantzan

idaztola. Kanikak eta txotxak materiala bereziak ziren.

Haurrek kaniken bidez Matematika jorrazten hasten ziren. Ikastolatik pasatako nork ez ditu gogoan *Hamarrekoa, Andre Joxepa, bixkiak, ardi igesa, Arttale, Mandubiko bidezai* eta abar. Zenbat irudi, kontakizun, antzerki... ikasleen aurpegiak ikustea nahikoa zen zeinen pozik zeuden ohartzeko. Gogoan dut Marianistetako zuzendariak esandakoa: «Zuen ikasleak burua ondo hornitua dute». Gaztelera dela eta, San Bartolome ikastetxeko madre Rubio irakasleak, Elbiraren ikasleek «artículo determinado» esateko ordez «adjetivo cortito» eta antzekoak erabiltzen zituztela kontu-



Elbira hurrez inguratuz Santa Teresako eskaileretan

G
,

ratu zenean, askotan goraiatu zuen Zipitriaren lan bikaina.

Txotxei buruz zer esan? Txotxak hainbat lanetarako erabiltzen ziren: batik bat, irakurketa eta idazketarako. Lurrean eserita bakoitzak bere kutxatilatxoa zuen eta «aita», «ama», «Mikel», «Ildoia»,... idazten zituzten, hizki etenez.

Ikastolak legeztatu ondoren, 1970ean, ikuskari batek ikasgelan lanean ikusiaz txotxekin ari ginela honela zioen: «¿En el suelo como los mahometanos?». Ustez barragarri utzi nahi zuenak laster jaso zuen erantzuna: «Parisko eskola-pilotu batean honela lan egiten dute». Elbirak argi zuen egiten zuena eta edonori aurre egiteko ausardia ere ez zitzaion falta.

Sarritan entzuna nion, Donostiako hurrek euskara kaxkarra zutela eta, lantzeko, abes-

tiak, olerkiak, ipuinak erabiltzen zituen. Bere ikasleek ehun abestitik gora ikasten zituzten eta Lizardi, Orixe, Oxobi eta beste hainbaten olerki politak ere ikasten zituzten.

Irteerak, gaur egun, irakaskuntzan oso modan daude, baina garai hartan ikasleak hartu eta gelatik irtetea oso berezia zen. Elbirak astean egun bat hartzen zuen horretarako. Aukera aproposa Urgull mendiak (guretzat Gazteluak) eskaintzen zigun. Haur guztiak hartu eta goiza mendian igarotzen genuen: hosto txapelketak eginez, gure herriko zuhaitzen izenak ikasten, barekurkuluak, amonamantangorriak, kilkerrak eta abar eskuetan hartuaz gozatzen eta txorien izenak ikasten. Tontorretik ikusi eta ikasten zutena inoiz ahaztu ezina zen: lurmuturra, izkolkoa, uhartea, ibaia, mendiak... Sarritan joaten ginen kaira berdelak, bokartak, sardinak ikustera. Gelara itzulitakoan, berriz, asmakiloak egiten



Kanikak erabiltzen



Kaniken bidez matematika lantzen

zituzten harrapatutako kilo eta prezioak erabiliz. Berdin egiten zen Bretxako azokan baserriarren jeneroekin. Irteera luzeagoak egiten zirenean, aurretik oso prestatuak izaten ziren: zein herritatik pasako ginen, ibaiaren izena, bertako nekazaritza, industria, monumentuak eta abar.

Garai hartan Europa aldean pil-pilean zeuden korronte pedagogikoen berri bazuen Elbirak: Frenet, Montessori, Piaget eta abar aztertuak zituen. Eta behin eta berriz entzun nion berak ez zituela gauza berriak asmatu, baizik eta onak eta aurrerakoiak zirenak hartu eta geurera egokitu, euskal sena eta nortasuna itsatsiaz.


Garai hartan ez zen liburu aukera handirik. Maitagarrienetakoa, Isaak Lopez Mendizabalen, *Xabiartxo*. Liburu hau sendiko seme-ala-



Irakurketa-idazketa txotxak erabiliz

ba guztiek erabili ondoren, askotan lagunei ere utzi behar izaten zitzairen, ez baitzegoen berririk erosteko aukerarik. *Martin Txilibitu*, *Umearen laguna* eta *Txomin ikasle* irakurtzen ikasteko erabiltzen ziren.

Benetan liburu polita, baina oso gutxik eskuraturatukoa, *Leoi-kumea*, 1948an Parisen argitaratua, Yllaren argazki zoragarri eta Nikolas Ormaetxea *Orixeren* hitz ederrez ondua. *Jesu Aurraren bizitza*, Don Manuel Lekuonarena, asko erabiltzen zen Eguberri garaian abesteko eta antzezteko. *Itun zarra* eta *Itun berria* liburuak, irakurketarako eta edestia



Matematikako ariketak

ikasteko baliagarri ziren. Benetan politak, laburrak eta koloretan, *Pipo, Doni eta Piru konejtxuen ipuinak*.

Elbirak kontsulta bezala erabiltzen zituen liburuen artean hainbat frantsesez daude: *Arithmetique: Cours elementaire*. Strasbourg, 1946. *L'arithmetique au cours elementaire*. Paris, 1944. *Tres y dos: Iniciación a la aritmética*. Barcelona, 1936. *Ya cuento. Aritmética para Párvulos*. Barcelona.

Elbirak aho hizkuntza izugarri lantzen zuen. Abesti, olerki, ipuinez, baliatzen zen. Haren ikasleek Lizardi, Orixe eta beste batzuen olerkiak ongi ikasten zituzten eta ondoren, bakoitzari zegokion marrazkia egin eta antzeztu ere egiten zituzten.



Migel Maria Egia, Down sindromeduna

Down sindromedunekin

Elbira, bere ikastolan lanean hasi aurretik, Migel Mari Egia Kareagaren etxera joaten zen egunero eskola ematera. Oso ikasle berezia zen Elbirarentzat, Síndrome de Down zeukan eta izugarrizko lanak egiten zituen bere heziketa ahalik eta egokiena bideratzeko. Ikustekoak ziren Migel Mariren blokak, txukunak eta hizki ederrarekin. Hizkuntzetan ere moldatzen zen: euskaraz, gazteleraz eta frantsesez. Matematikan, ordea, ezinean ibiltzen zen. «Lau eta hiru zenbat dira?» —«Bederatzi». —«Baina ez al dakizu zazpi direla?». Eta Migel Mariren erantzuna: «Horixe esan nahi nuen».

Zipitriak berak aitortzen zuen, buruz atzeratua zen ikaslearekin erabilitako metodo eta baliabideak oso lagungarri izan zituela ikasle arruntei irakasterakoan. Gainera, frogatu



Bost urteko haur baten lana Domund egunean

zuen horrelako ikasleekin ere etekina atera zitekeela eta bere bizi baldintzak hobetu.

Jose txo Egia Migel Mariren anaia apaizak eta bere sendiak parte-hartze handia izan zuten Donostian, adimen gutxituentzat lehenengo ikastetxeak eta egoitzak martxan jarri zituztenean. Beroriek eskaini baitzituzten Ulia mendiaren magalean aurkitzen ziren Kareaga eta Uliazpi etxeak.

Elbiraren ikasleek hamar urterekin erdal eskoletara joan behar izaten zuten Batxilerra egitera. Eta, jakina, ondo prestatuta ez bazeuden errua euskarari leporatuko ziotelakoan, buru-belarri aritzen zen azken urtea zutenekin: ordubete luzatzen zuen ikastaldia,

gazteleraz ere maila ona lortzeko. Euskaraz bezala, hizkuntza honetan ere olerki, abesti, ipuin eta abar herrikoiak irakasten zizkien. Zer pozik ikasten zituzten *Cuentos, juegos y poesías* liburuan zetozenak. Arrazolatarren aitak Madrila egindako bidaia batean bere seme-alabei ekarritako liburu zoragarria zen. Elbirak urtetan buruan ibili zuen euskaraz antzeko liburu bat egiteko asmoa eta Don Manuel Lekuona eta Don Jesus Gaztañagari bere asmoak adierazi ere bai. Ez zuen amets hori egia bihurtuta ikusi, baina 1978an *Etor*-ek argitaratu zuen Don Manuelen lan bikaina: *Txuri, Gorri eta Kikirriki* liburu polit, alai eta ulerterraza, urtetan ikastoletako haurrei irribarre ugari eginarazi ziena.



Libururik erabiltienak

Gau eskolak

Elbiraren lanik garrantzitsuena hurrei euskaraz irakastea izan bazen ere, orduak eskaini zizkion helduen ilunabarretako ikastaroei. 1956an, gau eskolan, bere etxean noski, Imanol, Maria Anjeles, Markel, Faustino, Manuel Mari, Felitxurekin izan nuen lehen harremana. Hauek Elbirarekin ikasitakoa ondo mamitu ondoren, beste batzuei irakasten gogoz saiatu ziren. Talde hauetan batzuk euskaldun zaharrak ziren eta beste batzuk, euskaldun berriak. Guztiekin emaitza bikainak lortzen zituen.

Elbirak ikasle ugari izan zituen ilunabarreko ikastaldietan, besteak beste, Karlos Santamaria: Honekin sarritan hitz egiten zuen ikastolaz eta irakasteko metodoaz. Ahoz egindako irakaskuntza oso aberatsa zela eta liburu ezak, berriz, irakasle ona bide berriak arakatzera bultzatzen zuela, esaten omen zion beti Santamariak.

Urte batzuk geroago, ikastolako irakasle talde batek ilunabarreko ikastaldietan parte hartu genuen. Jo eta ke gramatika lantzen saiatu ginen: Nor-Nori-Nork aditza, deklinabidea, sintaxia,... Antonio Valverde *Aialde* izan zen



Alderdi eguna: Itziar Errementeria, Elbira Zipitria, Elixabete Maiztegi eta Faustina Karril

ikastaldi haietan Elbiraren Nor-Nori-Nork aditzari irtenbidea aurkitu ziona bere gurpil famatuen bidez.

Elbirak Lazkaorako joera handia zuen. Ez da harritzekoa, ama Maria Irastortza eta amaren aldeko aitona Jose Joakin Irastortza herri horretakoak zituenez. Baina garai hartan beneditar gazte talde bati Euskal Gramatika irakastera eta, batik bat, euskal aditza irakastera joan ohi zen igandetan. Aita Ixidor Baztarririk esaten digu 1957-58 urteko ikastaldi haien fruitu izan zela berak 1968an idatzitako liburua. Pozik aitortzen du bere liburuan Nor-Nori-Nork sistemari eta beste puntu askori ematen zaion garrantzia Zipitriari zor diola. «Horregatik Elbirari, andereño eta euskal irakasle bizkorrari, eskaini nion nire liburua esker onez.»

Joxe Mari San Sebastian Zubillaga *Latxaga* apaizak, Parisko Sorbonako Unibertsitatean



Pilar Sansinenea, Elbira Zipitria eta Iñazita Munita

aurkeztu zuen tesiaren gaia hau izan zen: *La représentation du temps dans le verbe basque*. Lan honetan, hasieratik, Nor-Nori-Nork Elbiraren metodoa bere azterlanaren ardatz eta oinarritzat hartzen du. Latxagak dio: «gure herriak zorrak ordaintzen jakin behar luke. Maila handiko emakumea ezin dugu itzalpean utzi. Mingarria da niretzat hau ikustea: Nolako goi mailan aipatzen zuten Sorbonako irakasleek emakume hau eta beste aldetik, Euskal Herriak hain ezkutuan eduki».

Era berean, esan beharra dago, ikastaldi haietan gure abertzaletasuna eta herrimina pizteko aparteko adorea zuela ere, zenbat Aberri Egun, irteera, ospakizun eta abar sala hartan gauzatu ziren! Hemen ere haurren irakaskuntzan egin zuena bera egiten saiatu zen, Zabala-Arana, Azkue, Altube, Elizalde,



Elbira bere lankideekin



Bermeoko Mañun: Markel Izagirre, Gotzon Garitonaindia, Faustino Lasagabaster, Elbira Zipitria, Mari Karmen Mitxelena, M.^a Anjeles Esnaola, M.^a Dolores Agirre, Manoli Aleman eta Imanol Larrea

Orixe, Lizardi eta abar ondo aztertu eta barneratu ondoren, berak zuen aparteko argitasun bereziz jantzi eta guztiontzat ulerterraz bihurtuaz eskaini.

Gau eskola haietan begirune eta arreta handiz lantzen ziren berak hainbeste miresten zituen maisu handi haien lanak: Nikolas Ormaetxea *Orixeren Euskaldunak* eta *Barne-muintan* eta Joxe Mari Agirre *Lizardiren Biotz begietan* eta *Itz lauz* liburu bikainak.

Abertzaletasunaren eragile

Irakasle-ikasketak bukatu ondoren, Elbiraren Ikastolan urtebeteko jarduketak egin behar nituela jakinaren gainean jarri nituen nire gurasoek hauxe esan zidaten: «Elbira hori ez da ba izango gu gazteak ginela mitinak eta ematen zituena?». Nik orduan erantzunik ez nuen, baina bere ondoan laster ziurtatu nuen egia zela. Guda aurretik ezaguna izan zen

Tolosa, Oiartzun, Donostia eta Gipuzkoako hainbat herritan *Emakume Abertzale Batzako* partaide zenez.

Don Manuel Lekuonak esaten digu Elbira igandetan Oiartzuna joaten zela eta bertako neska-mutil gazteekin biltzen zela abertzale-tasuna pizteko. Aldian behin mendira ibilaldiak antolatzen omen zituzten: Urkabera, Aiako Harrira, Artikutzara, ... Lekuona jaunak jarraitzen du: «gure Elbiraren ereintzak fruitu onak eman zituan gure Oiartzunen». Gazte haiek hasi omen ziren *Euskal-Esnale* eta *Argia* aldizkarietan idazten, antzerkiak egiten, zartzuela, opera eta abar kantatzen. Emakumeen Batzokia ere orduan inauguratu omen zuten.

Tolosa aldean ere gogor aritu omen zen bere lagun minekin Pilartxo Sansiñenea, Iñaxita Munita, Joxe Ariztimuño *Aitzol* eta beste hainbatekin ikastolak nola sortu asmatzen. Zoritxarrez guda galgarri hark lurpean utzi zituen, hainbat neke ondoren, loratuta zeuden gure Kultura lantegi guzti haiek.

Beti gogoan dut 1960ko martxoaren 22an nola etorri zen kaiko nire ikastolara begiak malkoz beteta, lur jota eta dardaraz: «Mari Karmen, Lehendakaria hil da». Benetan ustekabean harrapatu zuen. Segundo batzuk pasa ziren hitzik egin gabe. Baina ez zen sor eta lor gelditu. Berehalaxe hasi zen: «zerbait egin behar degu».

Arratsalde hartan, Ikastolako saioa bukatu ondoren, Elixabete Maiztegi anderearen etxean bildu ginen, pertsona mordoa zebilen hara eta hona bakoitza bere egitekoa arduraz beteaz. Ni oso gaztea nintzen eta prestatutako idazkiak bidaltzea izan zen nire lana: *Guipuzcoana* autobusera eraman, txoferrak Loiolako jesuiten etxean utzi zitzen; ondoren, *Baztanesa* autobusera, Lekarozko kaputxinoentzat.

Zer adierazten zen idazki hartan? Joxe Antonio Agirre Lekube lehendakaria hil zela, bere gorpua Donibane Lohizunera ekarriko zutela eta hileta elizkizuna noiz izango zen eta abar.

«Bezperatik joan behar degu, zurrumurruak hasiak dira muga itxiko dutela eta, beraz aurretik kontuak ateratzea hobe degu», esan zidan Elbirak. Esan eta egin. Hurrengo egunean Donibane Lohizunen ginen. Lehendakariaren gorpua Telesforo Monzonen etxera ekarri zuten eta han jarri bertaratu ginen guztiok azken agurra emateko. Nahiz eta traba ugari jarri muga apaiz mordoa, Ikastolako gurasoak, batzuk seme-alabekin, bertaratu ginen. Elizkizun hunkigarria izan zen eta kanposantuan Leizaola jaunaren zina. Egun haietan bizitakoa adieraztea oso zaila egiten zait baina, esan beharra dut hemen ere nire sentimendu abertzaleak hein handian Elbirari esker piztu zirela.

Gogoan ditut Don Nemesiok, lehendakariaren omenez idatzitako bertsoak. Elbiraren

Ikastolara etorri zen eta hantxe bertan ikasi genituen irakasleok eta hurrek:

Noiz arte, Jauna bear gaituzu
makilapean itotzen?
Gure otoitzak ez al zaizkizu
zure aulkira igotzen?
Leenak naikoa ez ditugula,
joan da gure gizona.
Non dezu, Jauna, gure gidari
gendun Lehendakari ona?

Ezkutuko urte haietan tarteka mugaz bestaldera joaten ginen, Elbira bitarteko zela inoiz ezagutuko ez nituen pertsonak tratatzeko aukera izan nuen, Joseba Errezola, Monzon, Unzeta, Solaun,... gizon jator eta abertzale finak.

Ahaztu ezinak dira garai hartako Aberri Eguna. Aste Santuko oporrak hartu eta kezkaz beterik egoten ginen egun hori pasa arte. Orduan lasaitzen ginen. Nahiz eta Elbirak lagun ugari izan Aberri Egunean gu biok joaten ginen, goizean goiz trenez. Arazo gutxienak kostako trenean izaten genituen. Autoz joaten zirenek behin baino gehiagotan bidean gelditu behar izaten zuten eta oinez bukatu. Gogoa dut Gernikakoa. Gu, beti bezala, trenez joanak ginen. Autoz joan zen gure beste taldeari, Muxikara iritsi zenean Guardia Zibilak gelditu eta, aurrera egitea debekatu zion. Kotxea bazterrean utzi eta oinez jarraitu zuten. Etxerakoan, isuna autoan: «por transportar ganado y dejar en malas condiciones en carretera». Barregarria ezta! Baina urte haietan beldurgarri.



Elbira eta Barandiaran
Ataungo Sara etxean



Elbira ikasleekin Donostiako gazteluan

Emakumeen berdintasuna

Saur egun gizarteak egin duen aldaketa begi-bistan dago, baina orain dela hirurogei urte iraultza honetan protagonista izatea gogoan hartzekoa da. Elbira izan zen guda ondoren sortu ziren Ikastolen eragile. Pedagogi aurrelariaren eta euskaraz eginaren arima. Neska-mutilak elkarrekin ikasgelan bildu zituena. Nahiz neska nahiz mutil izan heziketa berdina eman ziena. Denak lan guztietan parte hartzen zuten: erraztu, garbitu, janaria prestatu, biberroia eman,... 2004. urtean emakumeek hain gogoz eta ozenki egiten dituzten eskakizunak, Elbira Zipitriak, era apala-

goan, 1940ko hamarkadan bereak egin zituen.

Gure Elbira meza ondoan askotan joaten zen sakristiara apaizari kontuak eskatzera: «Gaurko sermoia ez da neretzat eta emakumeentzat izan; anaiak gora eta semeak beheara aritu zara, noski latineko kutsua dezue, euskaraz beti anai-arrebak, seme-alabak, esan beharra dago eta gehiegi luzatu nahi ez baduzue senideok esan eta kitto». Batzuetan apaizak apal-apal onartzen zion, baina inoiz purrustada ederren bat ere jaso izan zuen, aldamenekoen lotsarako.

Izadizale purrukatua

Zer esan hain gogoko zituen irteeraz: Beti prest zegoen Euskal Herriko txoko eta bazterrak miatzeko. Bere pedagogian, nahiz haurrekin, nahiz helduekin, irteerak ezinbestekoak ziren. Hamaika ikasiak gara bere joan-etorrietan. Matxin Labaienek zioen bezala, «izadizale purrukatua» baitzen.

Mikel Goiaingeruaren eguna Ikastolan jai izaten genuenez, irakasleok Aralarko San Migela joaten ginen askotan. Urre kolorez janzten hasiak egon ohi ziren pagadiak. Ikaragarri gozatzen zuen Elbirak hango elizkizun, bista, mendi eta zuhaizti ederrekin.

Xabier Donearen Eguna, euskararen zaindaria, guretzat Ikastolan ari ginenontzat egun berezia. Sarritan Lazkaora jotzen genuen, hango fraideak, Aita Mauro Elizondo, Ixidor Baztarrika, Dunixi Amundarain eta beste hainbat oso kuttunak baitzituen. Berriketan bazkaltzeko ordua pasa eta Ataungo Kaxetan egiten genuen bazkari legea, arrautza friji-tuak lukainka muturrarekin. Garai haietan ez baitzegoen jatetxe aukera handirik.

Udarako oporretan berriz, mendiko ibilaldiak ere antolatzen genituen; askoren artean gogoan dut Urkiolara joan ginenekoa: bidean galdu, ilunabarra gainean eta, zaldi txabola batean gaua pasa behar genuela etsi ondoren, argi izpi batzuei jarraiki ostatura iritsi, afari arin xamarraren ondoren ondo lo egin eta hurrengo egunean Anboto tontorrean aurkitzen ginen.

Ibilaldi horietako asko bi zatitan egiten genituen: zati bat, seiszientosean; bestea, oinez. Orhi mendira joan ginenean, kotxea Uzta-rrutzen utzi, Otsagabian lo egin, eta Manuel Mari eta lagunok gailurrera iritsi ginen kazkabarra eta ekaitz artean. Baina mendira igo-tzeko oso eguraldi txarra egiten zuela eta,



Goiz batean hauxe topatu zuten

herrian gelditu zen Zipitria. Baina ez alferkerian: «zuek tontorrean izango zinateen, baina, nik gaur hemen ikasi dudana, bertako zaharrei entzunaz, gure historiaren zati garrantzitsua da».

Ataungo Don Joxe Migelen *Sara* etxetik ere behin baino gehiagotan pasa ginen. Adiskide zaharrak ziren Barandiaran eta Zipitria. Iparraldean igarotako urtetatik zetorkien harremana. Begirune handia zion gorputzez hain txiki baina, jakinduriaz eta apaltasunez hain handia zen gizonari. Osabarekin bizi zen Pilar Barandiaranek erakutsi zion, gainera, Elbirari «hika» eta «noka» hitz egiten.

Hainbat irteeraren artean hauxe aipatu beharrekoa, bere azken nahiarekin zerikusia handia duelako: Bermeoko Mañura egindako bidaiak: batzuk, Ikastolako haurrekin; besteak, gau-eskolako ikasleekin.

Ira idazlea

Elbirak bazuen beste zaletasun bat, idazle izatearena. Nork ez du bere eskutitzen bat jaso? Sarritan goxoak izaten ziren, baina tarteka garratz xamarrek ere bai. Aita Iratzederrek, berak aitortzen duenez, laurogeita berderatzi ditu jasoak.

Bai guda aurretik eta baita ondorenean ere zenbait egunkari eta aldizkaritan zuhurtasun eta aparteko trebeziak idazten zuen, *Ira* izen-goitiaz izenpetuta. Elbira izenaren bukaeratik hartu zuela uste izan dute batzuek. Zenbait lekutan *ihi* adierazteko ere erabiltzen dute *ira*. Baina berari entzun nionez, garoa adierazteko erabiltzen den *ira*, iratze, irastor hitzetik hartu zuen *Ira*. Amaren *Irastortzatik* hartua, beharbada, umezurtza zelako amaren beharraren miraz. Aitarik gabe 21 urterekin eta amarik gabe 24 urterekin geratu baitzen.



Agur aldizkariarekin Elgetan, 1972an



Gaur egungo Orixe ikastola Muñoarena izan zen Kanpanario kalean

Irakaskuntzako azken urteak

Ezkutuko Ikastola haietatik irtetea Elbirarentzat oso gogorra izan zen: alde batetik, garrantzitsua zen argitara atera eta alde guztietan Ikastolak zabaltzea; bestetik, berriz, ez zen fidatzen orduko agintariekin, beldur zen atzerapausoa izango ote zen. Ordurako 62 urte bazituen eta bere osasuna ez zegoen onenean, tristurak jota aurkitzen zen.

Santa Mariako hasierak ez ziren oso atseginak izan, gelak traketsak izateaz gain, ilunabarretan gazteak erabiltzen zituzten. Ikustekoa zen nola aurkitzen genituen sarritan, goizean lanean hasterakoan. Baimena lortu aurretik ikuskaria-
ren bisita izan genuen. Ikasleei sekulako azterketa egin zien gai guztiak menderatzen zituzten jakiteko. Baina bukaeran galdera gaizto hauek egin zizkion zortzi urteko mutikoari:

—¿Cuál es tu patria?

—Euskadi.

—¿Conoces alguna bandera?

—Sí, la ikurriña.

—¿Qué colores tiene?

—Blanca, roja y verde.

—¿Quién es Franco?

—Un hombre.

—¿Cómo es el escudo de España?

—No sé.

Ez da ahaztu behar 1969ko kontuak direla. Ikuskariak alde egin bezain laster parrokoa, irakasleak eta gurasoak bildu ginen eta pentsatu genuen: «Kitto gure baimena eta ikastola!».

Hurrengo egunean parrokoa eta gurasoen ordezkariak ikuskaritzan izan ziren eta beste gauzen artean hauxe esan zien: «Zuen ikasleak ondo prestatuak daude *Formación del espíritu nacional*-ean izan ezik».

Zorionez, 1969-70 urtean gela txukunagoe-tan lau irakasle: Elbira Zipitria, Mari Karmen Mitxelena, Miren Terese Aleman eta Koro Aldanondo Santa Maria parrokiaren babeseko Orixe ikastolan elkartu ginen.

Elbira buru-belarri aritu zen dena antolatzen eta prestatzen, baina agian haur kopuru handiarekin lan egin beharra, taldean moldatu beharra, antolakuntza hein batean gurasoen esku gelditzea eta abar berarentzat jasan ezinak bihurtu ziren.

Hirugarren ikastaroaren hasieran gurasoek erabaki zuten irakasle bakoitza zein ikaslerekin arituko zen eta berari esan zioten lau urteko haurrekin lan egin behar zuela. Agindu hau ez zuen ontzat eman eta ez zen gehiago ikastolara azaldu. Bere adiskideak saiatu ziren egoera hura konpontzen, baina ezinezko izan zen. Guk, bere lankideak eta oso lagunak izan arren, ez genuen irtenbiderik aurkitu. Haren ikasleak gure artean banatu behar izan genituen. Horrela iraun genuen bost hilabetez irakasle berri bat lortu bitartean.



«Jesus aurraren bizitza» sarritan antzezten zuten

Erlijio sendoa

Elbiraren bizitzan eta irakaskuntzan kristau hezierak garrantzi handia zuen. Pertsona eta kristau jatorrak prestatu nahi zituen. Zenbat atzera-aurrera berak zituen helburuei erantzuteko. Horrelako batean sortua zen *Jainko ederra* txikien otoitza. Itziar Errementiaren seiszientosean joan ginen Belokera Xabier Diharce *Iratzeder* fraide beneditarrarengana, aurrez Elbirak idatziz eskatua zion haurrentzako otoitza xumearen bila.

Jainko ederra,
On-ona eta aundia,
Zeruko Aita:
Oiuka zure aurtxo:
Gora Jainkoa!
Zurea ni oso-oso.



Elbirak pizkundeari ematen zion garrantzia

Andre Mariari eskainitakoak ere hamaika buruhauste eman zizkion. Haurrentzat etxe-ko amak zuen garrantzia kontuan izanik, pedagogiaren eta olerkariaren ukituarekin ondorengo abesti polit hau argitara eman zuten:

Etxean ba det ama
Jainkoak emana.
Zeruan beste Ama
Andre Mari ona.
Bien eskutik noa
Zeruko Aitagana.

Gabon garaian Don Manuel Lekuonaren *Josu Aurraren bizitza* antzeztu egiten zuten haurrek aparteko alaitasun eta otoitza giroan.

Elbirak Pazko aldiari garrantzi handia ematen zion. Jesusen Pizkundera misteriorik handienetakoa zela esaten zuen, nahiz eta Elizak Ostegun eta Ostiral Santuak gehiago gorai-patu. Ikasgela Quinet kalonjearen *El catecismo*

por el dibujo liburuko Jesusen Piztuerako marrazkiekin eta lore txuriekin apaintzen zuen.

Aipatzekoak dira garai hartako Lehenengo Jaunartzeak. Donostian ez zen euskarazko elizkizunik egiten. Elbira hasi zen Santa Teresa sako Karmeldarren elizan euskaraz Jaunartze ospakizunak eratzen. Lazkaoko Aita Ixidor Baztarrika eta Aita Dunixi Amundarain etortzen ziren meza ematera. Elbirarentzat beneditarrak ziren liturgian aurreratuenak. Otoitzak eta abestiak ondo aukeratu eta giro apal eta maitekorrean egiten zuten Lehenengo Jaunartzea.

Sendotza Sakramentuak ere bazituen istorioak. Elbirak jakiten zuen misioetako gotzainen bat noiz etorriko zen. Nik bi ezagutu nituen Migel Anjel Olano, Altzoko semea eta Iñazio Larrañaga, Aldabakoa, biak kaputxi-noak. Donostian bat baino gehiago badira

hauen eskuetatik Sendotza hartutakoak. Hala ere, azkena antolatutakoa gaizki atera zitzaigun: Larrañaga gotzain zela, Artikutzako elizan ospatu behar zen. Baina Donostiako udalak Artikutzan sartzeko baimena ukatu eta bertan behera gelditu zen Sendotzako ospakizuna.

Elbira eta bera bezalako hainbat euskaltzale-
ren eraginez hasi ziren Groseko San Inazio lehenengo ostiraletan mezak euskaraz. Baita igandetan Jesuiten elizan ere.

Maria Dolores Agirrerentzat, «bene-beneta-ko kristaua eta euskaldun zintzo eta gartsua zen Elbira». Bukaera arte izan zituen, gainera, buru argia eta sinismena itxaropentsua. Ondo konturatu zen azkena bazetorkiola eta erietxean bere ondoan zituen Elixabete Maiztegi eta Koro Etxegoien adiskide kuttu-
nei «Elizakoak» hartu nahi zituela eta apaiza-ri deitzeko eskatu zien. Berehalaxe hil zen.



Elbiraren hilobia Mañuko kanposantuan



Elbiraren hilobia Mañuko kanposantuan

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mari Karmen Mitxelenari
- Auñamendi Enziklopediari
- Omenaldiko liburuari. Euskerazaintza: Zipitria'tar Elbire «Andereñoa» omenaldia. Euskerazaintza 'k. 1986
- *Bidegileak* bildumari
- Itziar Errementeriari
- Mañuko Joan Abaroari
- Xabier Garaialderi
- Mertxe Aldairi
- Pilar Barandiarani
- Marisa Landetari
- Itziar Illarramendiri

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2365-0 (Lan osoarena)
84-457-2369-3

L.G.: BI - 2871-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística